

MUSIKA - MÚSICA 2022 JAIALDIAK KANTAMUNDI AURKEZTUKO DU ZAPATUAN, BILBOKO KORAL ELKARTEAREN ETA URIKO IKASTETXE BATZUEN ARTEKO EKIMEN BAT

- Programa honen bidez, abesbatzen sare bat sortu nahi da, eta kulturarteko sistemak sortu, ikasleen kognizio-, afektu- eta sormengaitasunak sustatzeko.
- Kontzertuan, gainera, Olatz Saitua, Ainhoa Zubillaga eta Judith Jauregi jardungo dira; 19:00etan hasiko da Bilboko Euskalduna Jauregiko "Kiosko" gunean.

(*Bilbo, 2022ko martxoaren 3a*).- Musika-Música Jailadia, Bilboko Udalak antolatzen du, eta asteburu honetan ospatuko da — martxoaren 4an, 5ean eta 6an— haren 21. edizioa, naturari buruzkoa. Atzera ere, Jaialdiak leku bat gorde du interprete gazteentzat, eta ibilbide luzea egina duten artistekin batera joko dute, egoitza beretan eta programa berarekin. **Euskalduna Jauregiko "Kiosko" gunean** izango da, **zapatuan, 19:00etatik aurrera, Kantamundi programaren** estreinaldia. Sarrerak salgai daude daborduko, 3 euroan.

Kantamundi Bilboko Koral Elkartearen eta Musika-Música jaialdiaren ekimen bat da, eta uriko hainbat ikastetxek parte hartzen dute bertan, **abesbatzen sare bat sortzeko** eta ikasleen kognizio-, afektu- eta sormen-gaitasunak sustatuko dituzten **sistema kulturartekoak** sor daitezen eragiteko. Interpretatziale eta konposatzaile profesionalek parte hartuko dute programa honetan.

Musika-Música jaialdiak programa berri hau aurkeztuko du aurten, **Bilboko Koral Elkartearen "Eskolan Kantari"** proiektuan parte hartzen duten umeentzat. Urtero-urtero, gazte artista hauek bat egiten dute Jaialdiko musika-jotzaileen zerrendarekin, ikasgelan ikasi dituzten kantuak eta beren-beregi *Kantamundi* ekimenerako idatzitako partitura berriak eskaintzeko.

Edizio honetan, **Gabriel Erkoreka bilbotar konpositorearen** katalogoa inauguratuko da, **Estatuko 2020-2021 musika-sariaren irabazolearena**, *La Lora* venezuelar kanta herrikoaren moldaketa batekin. **Deusto, Uribarri, Aingeru Zaindaria, San Pedro Apostolua, Mujika Ikastola, Tiboli Eskola eta Basauri Basozelai ikastetxeetako umeak** batuko zaizkie Bilboko Koral Elkarteko umeen abesbatzako ahotsei eta Musika-Música jaialdiaren edizio honetako izar batzuei, hala nola **Olatz Saitua, Ainhoa Zubillaga eta Judith Jauregi**, kontzertu parte hartze bidezko eta desberdin bat eskaintzearen.

NATURA

Aurten, natura izango du gai nagusia Musika-Música "NATURA" jaialdiak, eta, BIHARTIK hasi eta asteburu osoan zehar, 70 kontzertu eskainiko ditu era guztiako publikoentzat, betiko *maratoi* formatuan, batez ere Euskalduna Jauregian, baina baita ere Azkuna Zentroan, EHUko Bizkaia Aretoan, eta, lehenengo aldiz, Arriaga Antzokian. Orkestra sinfonikoak, atzerrian ospetsuak diren orkestra barrokoak, bai eta laukoteak, hirukoteak,

musika-tresnen jotzaileak eta ahotsak ere batuko dira jaialdira. Multzo artistiko horretan **1.300 musikari** inguru izango ditugu, hala dagoeneko ospetsu bihurtuak nola berriak, eta gustu eta publiko mota guztientzako proposamenekin aterako dira agertokira.

Oraingo honetan, natura hartu du inspirazio-iturri 2022ko Musika-Música jaialdiak, zeina era honetako jaialdi bakarra baita estatuan, eta naturan inspiratutako musikaren ibilbide historiko bat proposatuko dio publikoari, eta han aurkituko ditu musika klasikoko obrarik esanguratsuenetako batzuk, besteak beste Vivaldiren *Lau Urtaroak*, Haydn-en *Kreazioa*, Richard Straussen *Alpetar Sinfonia*, Beethovenen *Pastorala*, Mahler-en *Lurraren Kantua* edo Copland-en *Appalachian Spring*.

SARRERAK SALGAI

- Euskalduna Jauregiko leihatiletan: astelehenetik zapatura, 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.
- www.euskalduna.eus webgunean.
- Kutxabank-eko orotariko kutxazainetan
- Taldeentzako bakarrik: 94 403 51 80 telefonoan, 12 sarreratik gora, kontzertu baterako (gutxienez 50 sarrera erosi behar dira).
- "Kiosko" eremuan Interpretzaile Gazteen kontzertuetara sartzeko, sarrera beharko da (3 euro).

COVID-19 GAITZAREN KONTRAKO NEURRIAK

Jaialdiaren antolatzaleek zorrozki beteko dituzte COVIDa dela eta indarrean dauden neurri guztiak, baita maskara eremu itxietan erabili beharrari buruzkoa ere, besteak beste. Uneoro, Musika-Música jaialdiaren egoitza guztieta, aretoetako langileen gomendioak bete beharko dira.

→ Egitarauaren xehetasun guztiak eta ordutegi eta prezioen gaineko informazioa jaialdiaren webgunean dago eskura: musika-musica.bilbao.eus

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

MUSIKA – MÚSICA 2022 PRESENTARÁ EL SÁBADO KANTAMUNDI, UNA INICIATIVA CON LA SOCIEDAD CORAL DE BILBAO Y VARIOS CENTROS ESCOLARES DE LA VILLA

- Este programa busca crear una red de coros y apostar por la creación de sistemas interculturales que fomenten las capacidades cognitivas, afectivas y creativas de los y las escolares.
- El concierto en el que participarán además Olatz Saitua, Ainhoa Zubillaga y Judith Jauregui, comenzará a las 19:00 horas en el espacio “Kiosko” del Palacio Euskalduna de Bilbao.

(*Bilbao, a 3 de marzo de 2022*).- El Festival Musika-Música que organiza el Ayuntamiento de Bilbao celebrará este fin de semana, –días 4, 5 y 6– su 21ª edición dedicada a la naturaleza. De nuevo, el Festival ha reservado un espacio para jóvenes intérpretes que compartirán sede y programa con artistas de trayectoria. El espacio “Kiosko” del Palacio Euskalduna acogerá el **sábado, a partir de las 19:00 horas**, el estreno del programa *Kantamundi*. Las entradas están ya a la venta a un precio de 3 euros.

Kantamundi es una iniciativa de la Sociedad Coral de Bilbao y Musika-Música, en la que participan diversos centros escolares de la Villa, con el objetivo de **crear una red de coros** y apostar por la **creación de sistemas interculturales** que fomenten las capacidades cognitivas, afectivas y creativas del alumnado. Intérpretes y compositores profesionales colaboran con este programa.

Musika-Música presentará esta edición este nuevo programa pensando en las niñas y los niños que participan en el proyecto **Eskolan Kantari de la Sociedad Coral de Bilbao**. Cada año estas y estos jóvenes artistas se sumarán a la lista de intérpretes del Festival para ofrecer las canciones que han trabajado en el aula y las nuevas partituras que se escribirán expresamente para *Kantamundi*.

Esta edición inaugurará el catálogo el compositor bilbaíno **Gabriel Erkoreka-premio nacional de música 2020-2021-** con un arreglo de *La lora*, canción popular venezolana. Niñas y niños de los **centros escolares de Deusto, Uribarri, Ángeles Custodios, San Pedro Apostol, ikastola Mujika, Tiboli Eskola y Basauri Basozelai** se unirán a las voces del coro infantil de la Sociedad Coral de Bilbao y a algunas de las estrellas de esta edición de Musika-Música, como son **Olatz Saitua, Ainhoa Zubillaga y Judith Jauregui**, para ofrecer un concierto participativo y diferente.

NATURALEZA

Dedicado a la naturaleza, Musika-Música “NATURA” ofrecerá desde MAÑANA y durante todo el fin de semana, 70 conciertos para todo tipo de públicos en su habitual formato maratón, fundamentalmente en el Palacio Euskalduna, pero también en Azkuna Zentroa,

en el Bizkaia Aretoa de la UPV/EHU, y por primera vez en el Teatro Arriaga. Reunirá orquestas sinfónicas, orquestas barrocas de reconocido prestigio internacional, así como cuartetos, tríos, instrumentistas y voces. Un conjunto artístico que conforma un elenco de aproximadamente **1.300 músicas y músicos**, de trayectoria y noveles, que compartirán escenarios con propuestas para todos los gustos y públicos.

Inspirado en esta ocasión en la naturaleza, este Festival único de estas características en el Estado propondrá al público un **recorrido histórico de la música inspirada en la naturaleza**, en el que sonarán algunas de las obras más representativas de la música clásica, entre otras *Las Cuatro Estaciones* de Vivaldi, *La Creación* de Haydn, *La Sinfonía Alpina* de Richard Strauss, *La Pastoral* de Beethoven, *La Canción de la tierra* de Mahler o *Apalachian Spring* de Copland.

ENTRADAS A LA VENTA

- Taquillas del Palacio Euskalduna: de lunes a sábado, 12:00-14:00 horas y de 17:00-20:00 horas.
- En la página www.euskalduna.eus
- Cajeros multiservicio de Kutxabank
- Venta exclusiva para grupos: en el teléfono 94 403 51 80 a partir de 12 entradas para un mismo concierto (compra mínima 50 entradas).
- El acceso a los conciertos de Jóvenes Intérpretes en el espacio “Kiosko” se regulará con entrada (3 euros).

MEDIDAS COVID

La organización del Festival cumplirá de manera rigurosa las medidas vigentes sobre normativa COVID, entre otras, en lo relativo al uso obligatorio de mascarilla en espacios cerrados. Se deberán atender en todo momento las recomendaciones del personal de sala en cada una de las sedes de Musika-Música.

→ Todo el detalle de la programación y la información relativa a horarios y precios está ya disponible en la web del festival: www.musika-musica.bilbao.eus

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)